

# 18/12

## *irizpena*

Gizarte Zerbitzuetako Irabazi-asmorik gabeko Erakundeak Gizarte Interesekoak izendatzeko Adierazpenaren Dekretu Proiektuari Buruzkoa

Bilbon, 2012ko irailaren 21ean



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea



*i*rizpena 18/12

## ***I.- SARRERA***

---

2012ko uztailaren 27an Euskal Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordean Lan eta Gizarte Gaietako Sailaren idazki bat sartu zen. Idazki horretan, “*Gizarte Zerbitzuetako Irabazi-asmorik gabeko Erakundeak Gizarte Intereseakoak izendatzeko Adierazpenaren Dekretu Proiektuari*” buruzko txostena eskatu zuen, Euskal Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontsultan aipatzen den ekimen legegilearen xedea, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen V. titulua garatuz, irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte intereseakoak izendatzearen arauketa da, legearen 74. artikuluan aurreikusten denez. Gizarte zerbitzuak ematen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak aintzatestea da gizarte intereseko adierazpen honen helburua.

Berehala dokumentuaren kopia bidali zitzaien Kontseiluko osoko bilkurako kide guztiei, euren proposamenak eta iritzia bidaltzeko, eta beraien berri emateko lan batzorde egokiari, Euskal Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordearen Araudian ezarritakoaren arabera. 2012ko irailaren 13an, Gizarte Garapeneko Batzordean bildu zen, eta hartutako akordioetatik abiatuta, irizpen proiektu hau egin zen, Kontseiluaren irailaren 21eko osoko bilkurari aurkezteko. Aho batez onetsi zen.

## ***II.- EDUKIA***

---

“*Gizarte Zerbitzuetako Irabazi-asmorik gabeko Erakundeak Gizarte Intereseakoak izendatzeko Adierazpenaren Dekretu Proiektuari*” buruzko testuak zioen azalpena, 11 artikulua (4 kapitulutan banatuak) eta hiru azken xedapen dauzka. Hona hemen edukiaren laburpen bat.

### **ZIOEN AZALPENA**

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, V. tituluaren, ekimen pribatuaren esku hartzea arautzen du gizarte zerbitzuen eremuan. Esparru

horretan, lege-testuak irabazi-asmorik gabeko gizarte ekimenaren babes publikoa arautzen du, eta aurreikusten du hori osatzen duten erakundeak gizarte interesekotzat aintzatetsi ahal direla.

Gizarte Zerbitzuen Legean gizarte intereseko adierazpen hau aurreikusteari esker, batetik, Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorereko erakundeei publikoki aitortzen zaie autonomi erkidegoan gizarte zerbitzuak agertzeko eta garatzeko egin duten ekarpena. Bestetik, Gizarte Ekintzako hirugarren sektore honen nortasun propio eta bereizia gorpuzteko kapaz den tresna bat sortu da.

Baina, helburu hauetatik haratago, aukera hori legean sartzeak beste xede bat ere badu: abantaila jakin batzuk eskuratzean lehentasun-irizpide bat finkatzea.

18/12*j*

Horrek zuzeneko isla dauka gizarte intereseko adierazpenean:

- irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuen aurretik lehentasuna izatea diru-laguntzak eta laguntzak eskuratzeko;
- lehentasunean, itun araubidearen esparruan, gainerako erakundeen aurrean, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 61. eta hurrengo artikuluetan ezarritako terminoetan, eta itun araubide hori arautzen duen garapen-araudian ezarritako terminoetan;
- Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 65 eta 72. artikuluetan ezarritako diskriminazio positiboko irizpide jakin batzuk betetzen direla frogatzea, itunaren esparruan eta erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuen kontratazioan.

## I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

Lehenik eta behin, **1. artikulua** dekretuaren xedea eta helburua definitzen ditu. Agintzen duenez, arau horren xedea irabazi-asmorik gabeko erakundeek gizarte intereseko adierazpena arautzea da, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 74. artikuluan ezarrita dagoenez. Gizarte interesaren adierazpenaren helburua, artikulua horren arabera, gizarte zerbitzuak ematen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak aintzatestea da.

**2. artikuluan** adierazten denez, EAeko gizarte zerbitzuen eremuan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeei (edozein forma juridiko dutela ere), eta hala direnez gero Gizarte Zerbitzuen erregistro egokian izena emanda daudenak, aplikatu behar zaie dekretua.

Gero, **3. artikuluan** agintzen du gizarte intereseko adierazpena egiteko eskumena Eusko Jaurlaritzari dagokiola, gizarte zerbitzuen gaian eskumenak dituen saileko sailburuak proposatuta, eta prozeduraren instrukzioarekin zerikusia duten funtzioak sail horrek egin behar dituela, gizarte zerbitzuetan eskumena duen Zuzendaritzaren bidez.

## II. KAPITULUA. GIZARTE INTERESEKO ADIERAZPENA ESKURATZEKO BETEKIZUNAK ETA ADIERAZPENAREN ONDORIOAK

18/12*j*

**4. artikuluan** erakundeak gizarte intereseko erakunde izendatu ahal izateko betekizunak aipatzen dira. Betekizun horien artean hauek daude: jardueraren helburu nagusia gizarte zerbitzuak ematea izatea, dirua irabazteko asmorik ez izatea, EAEn gizarte zerbitzuak emateko ibilbide historiko bat edukitzea, eta plantillaren %40aren kontratazioa mugagabea izatea.

**5. artikuluan** gizarte intereseko adierazpen horren ondorioak aurkezten ditu. Hauek dira: diru-laguntzak eta laguntzak ematerakoan lehentasuna izatea, baldin eta beren jarduketan eremuan kalitatea eta eraginkortasuna erakusten badituzte, erantzukizun publikoko zerbitzuak ituntzeko lehentasuna, eta foru aldundiek zerga-hobariak ematea.

## III. KAPITULUA. GIZARTE INTERESEKO ADIERAZPENA

**6. artikuluan** adierazpen horren hasiera deskribatzen da, eta eskaeran sartu beharreko datuak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa arautzen dira. Gero, **7. artikuluan** prozeduraren instrukzioa deskribatzen du, eta **8. artikuluan** beraren amaiera. Gero, **9. artikuluan**, eskatutako betekizunak mantentzea arautzen da.

#### IV. KAPITULUA. GIZARTE INTERESAREN GALERA ETA EZEZTATZEA

Lehenik eta behin, **10. artikuluan** adierazten da gizarte intereseko erakunde izendatzen den irabazi-asmorik gabeko erakunde batek zergatik gal dezakeen izendapen hori. Gero, **11. artikuluan**, gizarte intereseko adierazpena ezeztatzekeo prozedura zehazten da.

### **III.- GOGOETA OROKORRAK**

---

18/12*i* Gizarte Zerbitzuen Irabazi-asmorik gabeko Erakundeen Gizarte Intereseko Adierazpenari buruzko Dekretuaren proiektua aurkeztu zaigu, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 74.1 artikulua garatzeko. Artikulu horrek “Irabazi-asmorik gabeko erakundeak” du izena, eta honakoa dio: *“Gizarte zerbitzuen eskaintzan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeek, kasuan kasuko forma juridikoen berariazko legerian aurreikusitako baldintzetan herri-onurakotzat aitortuak izatearen kalterik gabe, gizarte interesekotzat aitortuak ahal izango dira, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzak biltzen dituztenean”*. Erakunde horiek, dio artikulua, lehenasuna izango dute diru-laguntzak eta laguntzak jasotzeko, baldin eta euren jarduketan eremuan kalitatea eta eraginkortasuna frogatzen badituzte.

Gero, lege horren bederatzigarren xedapen gehigarriak bi urteko epea finkatzen du, indarrean sartzen denetik aurrera, Eusko Jaurlaritzak araudi bidez garatu ditzan gizarte interesa adierazteko aplikatu behar diren baldintzak eta prozedura. Agindu horri erantzuten dio dekretu honek, eta positiboki baloratzen dugu.

Hala eta guztiz ere, edukiaz zenbait ohar egin nahi genituzke. Behean aipatuko ditugu, gogoeta berezi gisa.

## IV.- GOGOETA BEREZIAK

### 4. ARTIKULUA. GIZARTE INTERESEKO ADIERAZPENA JASOTZEKO BETEKIZUNAK

4.1.g) puntu berria gehitzea gomendatzen dugu, testu honekin:

*“g) Aplikatu beharreko laneko araudia (edo, egokia bada, sozietateen araudia) betetzea, eta bereziki Lan Arriskuen Prebentzioko Legea eta Emakumeen eta Gizonen Benetako berdintasunerako Lege Organikoa, baita inoren konturako langileen hitzarmen kolektiboa ere, balego”.*

### 6.1. ARTIKULUA. PROZEDURAREN HASIERA

6.1.e) puntu berria eranstea proposatzen da, hemen azaltzen denez:

*“e) Erakundearen laneko ordezkariaren txostena, balego”.*

### 7.2 ARTIKULUA. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA

Uste dugu beharrezkoa dela 2.d) puntua sartzea, testu honekin:

*“d) Aplikatu beharreko legeriaren arabera prozeduraren instrukzioaren pean dagoen erakundearen jarduerako funtzio-eremuan eta lurralde-eremuan sindikaturik esanguratsuenak diren ordezkariak sindikalei, enpresa erakundeei, eta gizarte ekonomiako eta hirugarren sektoreko erakundeei.*

### 10.3 ARTIKULUA. GIZARTE INTERESAREN GALERA ETA EZEZTATZEA

Artikulu honen hirugarren atala hobeto idazte aldera, aldaketa hau iradokitzen dugu:

*“3. Artikulu honetako 1. paragrafoko **ataleko c), d) eta e)** ataletan azaltzen diren kasuetan, gizarte intereseko erakunde izaera, eta izaera horri dagozkion eskubideak, galtzea automatikoki gertatuko da.”*

### 11.3 ARTIKULUA. EZEZTATZEKO PROZEDURA

11.3 puntuaren amaieran paragrafo hau gehitzea gomendatzen dugu:

“..”*Eta bereziki, dekretu honetako 7. artikuluko 2. puntuan aipatutako instrukzio prozesuko txosten-eskaerarekin analogian, ezeztatze prozedura instruitzeko txostenak eskatuko zaizkie ondoko hauei, egokia denaren arabera: Elkarteen Protektoratua, Fundazioen Protektoratua, gizarte ekonomian eskumena duen zuzendaritza (gizarte ekimeneko kooperatibei eta laneratze enpresei dagokienez), administrazio publikoak, hirugarren sektoreko erakundeak, eta sindikatu erakundeak, enpresa erakundeak, eta gizarte ekonomiako eta hirugarren sektoreko erakundeak (gizarte intereseko adierazpena ezeztatze prozeduraren pean dagoen erakundeak diharduen funtzio-eremuan eta lurralde-eremuan esanguratsuenak direnak)”.*

18/12*j*

## **IV.- ONDORIOA**

---

Euskal EGABen ustez, egokia da “Gizarte Zerbitzuetako Irabazi-asmorik gabeko Erakundeak Gizarte Intereseakoak izendatzeko Adierazpenaren Dekretu Proiektua” izapidetzea, kontsulta organo honek egin dituen gogoetekin.

Bilbon, 2012ko irailaren 21ean

OE Lehendakaria  
Juan María Otaegui Murua

Idazkari nagusia  
Francisco José Huidobro Burgos





CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: EEGAB

Gran Vía 81, 7. solairua  
48011 Bilbao. Bizkaia  
[www.cesvasco.es](http://www.cesvasco.es)

Maketazioa: EEGAB

Inprenta: Gestingraf

Lege Gordailua: BI-1601-12